



ALBOAN
www.alboan.org

Parte-hartzea tokiko esparrutik bideratuz



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Esperientziak ALBOAN

...

6. El desarrollo alternativo por el que trabajamos. Aprendizajes desde la experiencia. (2011)
7. Parte-hartzea, gizartea eta demokrazia. (2015)
8. Badauka generorik partaidetzak? Oztopoak hausten emakumeen partaidetzan. (2015)
9. Partaidetza-prozesuak, gizarte zibiletik eta herri administrazioetatik. Peruko kasua. (2015)
10. Gizarte-mugimenduak eta herritarren parte-hartzea. (2015)
11. Parte-hartzea tokiko esparrutik bideratuz. (2015)

Parte-hartzea tokiko esparrutik bideratuz



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2.
48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135

Barañain etorbidea, 2
31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302

Andia, 3
20004 Donostia
Tel.: 943 275 173

Estenaga Apezpikua, 1
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Data: Ekaina 2015

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-1824-2015

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

| | |
|--|-----------|
| Sarrera | 5 |
| Partaidetzaren artikulazioa, tokiko esparrutik. | |
| “Partaidetzaren korapiloak” | 7 |
| <i>Rafael Ajangiz.</i> UPV-EHUko Irakasle Titularra. Parte Hartuz taldearen sortzailea. | |
| 1. Esparru politikoa | 8 |
| 2. Esparru teknikoa | 10 |
| 3. Herritarren alorra | 12 |
| Partaidetzaren artikulazioa, tokiko esparrutik | 15 |
| <i>Arantza Ruiz de Larrinaga.</i> Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako foru zuzendaria. | |
| 1. Nola ulertzen da partaidetza, Gipuzkoako Aldundiaren Gobernutik? | 15 |
| 2. Gipuzkoan garatutako politika parte-hartzailea | 16 |
| 3. Esperientziatik ikasitakoa eta ideiak | 18 |
| Partaidetzaren artikulazioa, tokiko esparrutik. | |
| Hernaniren kasua | 21 |
| <i>Luix Intxauspe.</i> Hernaniko alkatea. | |
| 1. Parte-hartze foro egonkor eta iraunkorrak | 21 |
| 2. Aldian aldiko prozesuak, une zehatzetan sortzen diren eskariei erantzuten dietenak | 23 |

2008an lehertu zen krisi ekonomiko eta sozialak krisi politiko sakona ere ekarri du. Espainiako Estatuko hainbat plazatan, “Ez gaituzte ordezkatzin” zioten oihuak entzun ziren, eta horiek isla izan zuten geroago beste zenbait herrialdetan. Bertako herritarrak kalera atera ziren, euren beharrak eta arazoak kontuan hartzen ez dituen sistema batekiko gaitzespena erakusteko. Aldi berean, azken urteotan, hainbat erakunde publiko herritarren partaidetza handiagoaren alde agertu dira, herritarren eta administrazio publikoen arteko topaketa eta bateratzea lortzeko asmoz. Nola gerta daiteke paradoxa hori?

ALBOAN erakundea luzarotik dabil herritarren partaidetzaren gaia lantzen. 2007. urtean, lehenengo ikerketa argitaratu genuen; bertan, partaidetzaren oinarriak ezarri genituen, eta Hegoaldeko hainbat erakunde kideren esperientziak Euskal Herrian egindako beste esperientzia batzuekin elkartu genituen. Protagonistak eraikitzen dituen eta pertsonen, taldeen eta erakundeen gaitasunak indartzen dituen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu. Pertsonak zerbitzuen onuradun gisa antzematen dituen ikuspegi utilitarista gainditzen duen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu, euren burua eta ingurua garatzeko eragile diren herritarren protagonismoa sustatzen duen partaidetzaren aldekoa. Modu horretan, partaidetzako prozesuek herritarrentzako oinarritzko prestakuntzarako eskola gisa jarduten dute, eta gerora sortuko diren aldaketa pertsonal eta kolektiboen oinarria dira.

Baina partaidetzak ez du herritartasuna eraikitzen soilik; demokrazia zimendatu ere zimendatzen du. Hegoaldeko hainbat herrialdetan, neurri handi batean herritarren partaidetzako esperientziei esker, bertako sistema demokratiko ahulak indartu dira. Zenbait kasutan, politika publikoak hobetu eta giza garapenerako emaitzak lortu ahal izan dira. Horretarako, beharrezkoa da uste oker hau apurtzea: pobrezia egoeran dauden pertsonak izaki pasiboak,

hartzaileak eta garapen politiken onuradunak direlako ideia, alegia. Partaidetza sustatzeak herritarrekiko ikuspegia aldatzea dakar, eta partaidetza-prozesu orok herritartasuna eraikitzeke eduki behar duen izaera sustatu behar da; aukerak lortzeko eta askatasuna baliatzeko baldintzak sortzea dakar horrek.

Herritarren partaidetzako erronka handiak bi ardatzen inguruan biltzen dira: bata, nola inplikatu gizartea interes komunak zehazteko; bestea, zein espazio eta alorretan hartu behar diren erabakiak. Erakunde publikoek gizartearen eta horien talde antolatuen interesak ulertzeko duten modua ere beste alderdi garrantzitsu bat da, bezerotzan eta erakundeen edo horien liderren kooptazioan erori gabe. Partaidetzarako espazioak sustatzeak alderdi publiko, sozial eta politikoetan interesa duen gizartea eraikitzeke bidean jarri behar gaitu. Interes hori lagungarria izan daiteke gizarte zibileko talde formalentzat eta herritarrentzat oro har, Estatuarekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko baldintzak eraikitzeke. Baldintza horiek herritarren ondasun komuna eta ongizate orokorra lortzera bideratu behar dira, eta, horretarako, ezinbestekoa da herritarrek protagonismoa hartzea, euren bizitzan eragiten duten gaien inguruko erabakiak hartzeko orduan.

Partaidetzarako esperientzia gehienak tokiko esparruan garatu dira batez ere. Hurbileko esparruan garatzen dugu bizitzaren zati handiena, eta esparru horretan du zentzu handiagoa partaidetzak. Auzoen, herrien eta komunitateen inguruak partaidetzarako laborategi bikainak dira. Oinarritik hasi behar gara lanean, partaidetzak goi-mailako politikaren esparrua hartzea nahi badugu. Hori dela eta, koaderno honetan Euskadiko zenbait herritan gauzatutako partaidetza-esperientzia zehatz batzuk aurkezten ditugu. Horrez gain, zailtasunen eta horiek gainditzeko moduaren inguruko hausnarketa gehitu dugu, baita azken hamarkadetan partaidetza-prozesuak ezartzen jasotako ezagutzak ere.

Partaidetzaren artikulazioa, tokiko esparrutik.

“Partaidetzaren korapiloak”

Rafael Ajangiz.

UPV-EHUko Irakasle Titularra. Parte Hartuz taldearen sortzailea.

Aurkezten den agiri hau partaidetzaren korapiloei buruzko ikerketa-lan zabalago baten zati bat da. Lan handi horrek Eusko Jaurlaritzaren eta Innobasquen diru laguntza izan du. Honako hau izan da Eusko Jaurlaritzak Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria osatzeko sustatu zuen prozesu parte-hartzailearen lehenengo txostenetako bat.

Parte-hartzeak balio erantsia du politika publikoei buruzko erabakietan, kudeaketan eta osaeran, eta hori hartu da abiapuntutzat. Horrek guztiak zerikusia du espazio bereko hiru esparru handi hauekin:

1. Zeregin politikoa
2. Zeregin teknikoa
3. Herritarren inplikazioa

Hiru esparru handi horiek harremanen *locus*-ari dagokion espazioan daude. Euskadin 10 urte daramatzagu parte-hartzearen inguruko esperientziekin, eta esku-liburu ugari argitaratu dira parte-hartzearen eremuan zer egin eta nola antolatu behar den azaltzeko. Ikerketa honetan, parte-hartze horren ebaluazioa egin nahi izan da, barrenak azaleratu nahi izan dira eta zer arazo sortu diren eta horiei nola aurre egin behar zaien azaldu. “*Korapilo bat ezin da askatu nola egin den jakin gabe*” esaten da (Aristoteles), eta horretara iritsi nahi genuen, baina hainbat zailtasun sortu dira. Lehenbizi, landa-lana egin zen Estatu osoko 30 udal

erakundetan eta udalaz gaindikoetan, 15 Euskadin eta beste 15 Euskaditik kanpo, eta, lan horren ondorioz, konturatu ginen kanpoko jendea hemengoa baino askoz irekiagoa dela topatutako arazoei buruz aritzeko orduan; edonola ere, uste osoa dut eragina izan duela hemen egindako ikerketa bat izateak, izan ere, hurbiltasunaren ondorioz, jendeak ez du guztia kontatu nahi, batez ere erantzukizun teknikoak eta politikoak dituen jendearen aldetik; beldurra diogu, funtsean, eba-luatuak izateari eta eduki ohi ditugun tristurak kontatzeari, nahiz eta oso gauza interesgarriak irten diren.

Atera den gauzetako bat izan da prozesu parte-hartzaile bat gauzatu nahi badugu, ezinbestekoa dela hasierako gogoeta egitea, izan ere, hasierako gogoetarik egin gabe hasi ohi da askotan, eta horrek ondorioak izaten ditu, ez badakigu oso ongi nora iritsi nahi dugun, norekin iritsi nahi dugun, zein diren hasierako mugak eta zein den abiapuntua, premiak, zer baliabide ditugun, etab. Ez bada gogoeta orokor bat egiten “zer egin nahi dugun” aztertzeko, gero korapiloak ezin dira askatu, eta bata bestearen ondotik pilatzen dira.

1. Esparru politikoa

Ezinbestekotzat hartzen da politikaren alorrean aurretiko kontsentsua lortzea, izan ere, epe luzera begirakoak izaten dira prozesuak. Parte-hartze prozesuaren arrakastak edo porrotak ezin du borondate politiko ahul baten esku egon edo parte-hartze prozesua aldarrikatu duen eta aurretik ere kontrako jarrera duen oposizioa topatu duen boterearen txandakatzearen esku. Hasieratik beretik elkar ulertzeko eremu bat bilatu behar da, prozesua bera eta prozesuaren emaitza alderdien arteko liskarretatik babesteko, eta hauteskunderen eremutik alden du behar da. Bereziki, herritarrekin jokatzeko delako eta herritarren frustrazioa delako parte hartzeko prozesuei buruz egin daitekeen publizitateari kaskarrena. Jendeak ikusten badu prozesu batean denbora eta ahalegina jarri dituela eta gero ez diotela entzun edo prozesu horrek ez duela espero zen ibilbidea eduki, orduan, jende hori ez da itzultzen edo oso zaila da itzultzea. Prozesu horiek funtzionatuko badute, asko mimatu behar dira.

Aldi berean, zintzoa izan behar da ikuspegi politikotik, eta argi eduki behar da mugak daudela, eta argi utzi behar dira mugak horiek. Alde batetik, programari dagozkion mugak daude; alderdi politiko batek programa jakin bat izaten du, eta prozesu parte-hartzaile batean ez du bere programa urratzen duen

zerbaiten alde egingo. Beste alde batetik, politika publikoak berak ere badi-tu mugak, hau da, zenbait gauza ezin dira egin, esate baterako, horretarako eskumenik ez dagoelako. Beraz, beharrezkoa da hasieratik beretik herritarrek jakitea finkatuta daudela muga horiek, jendeak ez dezan engainatu dutela sentitu.

Sinergia asko daude politikaren eremuan, gobernariak prozesu parte-hartzaileak gauzatzeko duten gaitasuna eta borondate politikoa goibeltzen dituztenak. Parte hartzeak benetan dakarrenari buruzko gogoetarik ez dago, eta sakondu gabe hitz egiten da horri buruz; jende guztia dago parte-hartzearen alde, baina, praktikan, etengabe urratzen da oinarri hori. Azken urteotan, oso arrunta bihurtu da parte-hartzea, jende guztiak dihardu parte-hartzearen alorrean, edo esaten du hala egiten duela. Esate baterako, alkate batek bere bulegoan norbait hartzen duenean, parte-hartzea bultzatzen duela esaten da, eta herritarren parte-hartzearen etorki-zunaren kontrakoa da arrunt bihurtze hori.

Pentsatu ohi da hautestontzietan lortutako legitimitate demokratikoa ez dato-rrela bat demokrazia parte-hartzailearen legitimitatearekin, ni hautestontzietan hautatua izan banaiz ez dudala zertan legitimoztat hartu kanpotik datorrena; nor diren, noren ordezkari diren, era horretako galderek zapuztu egiten dituzte parte-hartze prozesuak. Bezero harremanak ere badaude, bai eta zintzotasun eta komunikazio argiko estrategia baten bitartez konpondu behar direnak ere, itxaropen faltsuak sortu gabe eta prozesuak mimatuz. Horretarako, behar adina baliabide esleitu behar dira, eta borondate politikoa eduki behar da hasieratik eta ez kapritxo bat balitz bezala jardun.

Hobe da parte-hartze gutxi baina onak, asko eta txarrak baino. Ez da oso esaldi sofistikatua, baina inspiratzailea izan liteke teoriatik praktikara igarotzeko. Gauza ez da esperientzia ugari egitea, zerrendetan, liburuetan, etab. ateratzeko, baizik eta garrantzia duten eta inpaktua izango duten gauzak egitea. Alabaina, horretarako, borondate politikoa ez ezik, lidergoa ere behar da, ibilbide luzeko prozesu batek oztopo ugari dituelako, eta pertsona baten lidergoa behar da, prozesu-arekin konpromisoa hartuko duena zailtasunak eta bidean topatzen diren harriak gainditzeko. Desadostasunak badaude, erresistentziak badaude, bai politikarien bai teknikarien aldetik, norbaitek egon behar du horiek gainditzeko. Norbait ez badago, prozesua erori egiten da, boikota barruan zein kanpoan baitago, eta horri aurre egin behar zaio.

2. Esparru teknikoa

Honako hau da sortzen den lehenengo galdera: nondik hasi behar da prozesu parte-hartzaile bat antolatzen? Hainbat aukera agertzen dira:

- a. Arau bat sortu behar da.* Praktikak dioenaren arabera, ez da derrigorrezkoa; parte-hartzea egon daiteke araurik gabe edo arau perfektu bat eduki baina parte-hartzerik ez.
- b. Uretara jauzi egin eta igerian ikasi.* Baditu trabak. Egia da prozesu parte-hartzaile orok sormena eta pertsonen arteko komunikazio maila handia behar duela, baina zer egingo den planifikatu egin behar da.
- c. Herritarren parte-hartzea aholkularitza bulego batera kanporatzea.* Dena dela, prozesu hori kanporatzean, Administrazioak txertoa jartzen duela ematen du, era horretara saihestu egiten baita parte-hartzeak Erakundearen egitura eta funtzionamendua kutsatzea, bertako funtzionamenduan eragitea.
- d. Bulego bat sortzea.* Hasieran ez da beharrezkoa, baina beharrezkoa da norbaitek erantzukizuna hartzea. Epe luzera, komenigarria izaten da udalerrri handietan era honetako bulegoak zabaltzea.
- e. Izan den parte-hartzearen memoria erregistratzea eta lehenengo plan intuitibo bat osatzea.* Urrats hau oso interesgarria da, eta ez da inoiz egiten. Ez da inoiz hutsetik hasten, beti egon da zerbait aurretik eta beharrezkoa da horretatik ikastea, gatazketatik, aurretiazko esperientzietatik ikastea, alegia. Zerbait ikusten bada, esan nahi du mesfidantza handia dagoela erakundearen eta gizarte zibilaren artean; batek ordezkartza-demokraziaren babesletzat du bere burua eta besteak demokrazia parte-hartzailearen babesletzat. Mesfidantza handia sortu da batzuen eta besteen artean, eta aurretik landu behar da gaia.
- f. Prestakuntza eta azalpenak hiru alderditan.* Hiru alderdiko lan hori ere ezinbestekoa da, teknikaria-politikaria-herritarra alegia, zer egin daitekeen eta zer ezin den egin jakiteko.
- g. Talde sustatzailea edo eragilea.* Hiru alorrak bateratzen dituen norbait (alor politikoa, teknikoa, herritarrena), prozesua arindu eta dinamizatuko duena, baina inoiz ez horren protagonista izateko. Erabakiak ez ditu talde eragile honek baliozkotu behar, baina prozesua gogoan edukiko duen norbait behar du.

Honako hauek dira alor teknikoan sortzen diren **arazoak**:

1. Giza kapitala Administrazio Publikoan.

Administrazioen funtzionatzeko moduak inkomunikatuak dira oso; pertsonak ez dira beraien artean komunikatzen, eta parte-hartzea zeharkako ardatza da, erakunde osoa hartzen duena. Beraz, beharrezkoa da orain ez dagoen komunikazioa edo horretarako ohitura sustatzea. Administrazioa bere formak eta egitura organikoak, gutxi-asko hierarkizatuak eta sailetan antolatutak, aldatzearen kontrakoa da. Hau da, behar-beharrezkoa da inkomunikazioaren egiturak haustea.

2. Lan baldintzak Administrazioan.

Herritarren ordutegiak ez dira Administrazioaren ordutegiak; nor jarriko dugu lanean bulegotik kanpoko ordutegian? Beharbada, beharrezkoa da denboren baldintzak, ordutegiaren malgutasuna, etab. hitzartzea, administrazioko zenbait pertsona prozesu horietan inplikatzeko eta herritarren denboren arabera jardutea.

3. Proiektukako kudeaketa.

Hobe da gutxitik askorako bidea egitea. Proiektu errealistekin, eskuragarriekin, hastea komeni da, epe labur ertainera begirakoekin, ondo kudeatu eta gauzatuarekin. Ezinbestekoa da prozesuek ematen dituzten emaitzak epe laburrera ikustea, ageriko ondorioak ikustea alegia, jendeak ez dezan prozesuan fedea galdu. Esate baterako, aurrekontu parte-hartzaile batean, inbertsiorako lehentasunak zein diren eztabaidatzen dugunetik inbertsio hori gauzatzen den arte 3 urte igaro litezke, eta jendeak ez du hori ikusten. Komunikazio-politika ona eduki beha da, eta, askotan, ez da alderdi hori zaintzen. Garrantzizkoa da ondorio jakin batzuk epe laburrera ikusten hastea. Funtsezkoa da, halaber, parte hartzeko prozesu horietan herritarrentzako garrantzizkoak diren gaiak lantzea eta ez azaleko gaiak edo gai anekdotikoak, jendearen bizitza errealean eraginik ez dutenak.

4. Non kokatu behar da parte-hartzea?

Erdigunean egon behar du, lidergo politikoari itsatsita, gure zailtasunak gainditzeko. Beste alde batetik, lurraldea, auzoa, herria politika publikoen eta jendearen topaleku izan liteke.

5. Ikuspegi komunitarioa.

Prozesu parte-hartzaile horietatik abiatuta komunitatea nola eraiki pentsatu beharko litzateke. Lurralde batean egoera konplexuekin ari garenean lanean,

ia guztia dago elkarri lotuta- eta parte-hartzea oso ondo egokitzen da eskema horren barruan.

6. Parte-hartze elektronikoa.

Baditu eragozpenak. Garrantzizko zulo digitala dago, eta hori nola gainditu aztertu behar da.

3. Herritarren alorra

Parte-hartzea nagusiki asoziazio bidezkoa izateak arazoak eragin ditzake. Parte hartzeko mekanismoak langile politikoek, langile teknikoek eta elkarteen ordezkari gisa dauden herritarrek osatzen badute, jende asko gelditzen da kanpoan. Lehenik, prozesu horiek beren baitan ixteko joera dutenez, sortzen den informazioa ez da kanpora ateratzen (esate baterako, aktak ez dira jendaurrera ateratzen), espazio hori herritarren ordezkaritza horrek eskuratuko balu bezala. Bigarrenik, joaten ez den jende asko dago. Gizonezkoak dira gehien joaten direnak, tarteko adinekoak, ikasketak dituztenak, hitz egiteko eta abarretarako gaitasuna dutenak, hau da, administrazioarekin dagoeneko harremana dutenak. Joaten ez direnak joatea lortu behar da, esate baterako, eremu erreproduktiboan dauden emakumeak dira mugimenduen sareei eusten dietenak, mugimenduetan bulego lana egiten dutenak, baina ordezkaritza eremuak, gehienetan, gizonezkoek hartzen dituzte. Kanpoan gelditzen dira, halaber, gazteak, eta haientzako espazioak bilatu behar dira, ez baitituzte helduek dituzten kode berak. Kanpora gelditzen da, halaber, gizartetik bazterturik dagoen jendea.

Tokiko Administrazioak oztopo ugari gainditu behar ditu parte-hartzea lortzeko:

1. Pertsonak gizarte-trebetasunak edukitzea eremu horietara joateko, adibidez, herritarren eskolak edo ahalduntze eskolak.
2. Jendeak motibazioa edukitzea eta eremu horietan egon nahi izatea, jendeak hainbat gai eransten joatea, hala nola, guztion onura, indibidualismoaren eskematik kanpo, alegia.
3. Parte-hartze eremuen eskaintza.
4. Jendea joan dadin eta parte har dezan gonbit egitea, eta, horretarako, haien premiak aipatzea. Zenbaitetan, espazioak sortzen dira, baina jendea ez da

horietan parte hartzera joaten. Jendearengana hurbildu behar da, eta espazio horietan parte har dezaten eskatu, haien premiak eta kezak aipatuz.

5. Gauza asko itzuli behar dira, jendeak uler dezan zentzua duela egiten ari denak, eta, era berean, uler dezan gertatu denak, haren parte-hartzeak, eragina duela, egiten ari dena eta erabiltzen ari den denbora aintzat hartzen dela.

Administrazioak erabiltzen duen hizkuntza ulertezina da askotan, eta hizkuntza arrunta erabili behar dugu. Herritarren moduetara eta garaietara egokitu behar da. Itzuli egin behar da; gardentasunak eta udalaren webgunean dena zintzilikatzeak ez du ezertarako balio, esaten dena ulertzen ez bada. Administrazioak teknikariak behar ditu parte hartzeko eremuetan, gaia kontrolatzen duen jendea; ez dago pentsatzen herritarren ezagutzak, eguneroko funtzionamendua eta sen ona ulertzeko moduak, txertatzean, eta hori da parte-hartzearen benetako ekarpena, herritarren ezagutzak, sen ona, txertatzea. Eremu inklusibo bat izan behar du, jende guztiarentzako lekua izango duena. Kontua ez da jende asko egotea eta denek berdin pentsatzea, baizik eta askotariko jendea egotea eta bakoitzak bere erara pentsatzea, lurraldean dauden diskurtso guztiak egon daitezen, izan ere, kontsentsuaren bilaketak erraztuko du gatazken kudeaketa eta arazoaren konponketa.

Partaidetzaren artikulazioa, tokiko esparrutik

Arantza Ruiz de Larrinaga.

Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako foru zuzendaria.

Aldunditik egindako lana garrantzitsua izan da partaidetza tokiko esparrutik sustatzeko, Aldundiaren eskumena udalez gaindikoa den arren.

1. Nola ulertzen da partaidetza, Gipuzkoako Aldundiaren Gobernutik?

Partaidetza emantzipazio eta eraldaketa indibidual eta kolektiborako tresna da. Tresna bat da, baliabide bat, ez helburu bat bere horretan. Herritarren jabeak bilatzen du. Partaidetzak balio behar du pertsona, komunitate eta gizarte askeagoak eraikitzeko. Herritarren partaidetza garatu ahal izateko, funtsezkoa da herri mugimenduekin lan egitea, askatasunetik, errespetutik eta mugimenduen autonomiatik.

Esparru instituzionalean, herritarren partaidetzak honakoak ahalbidetu behar ditu:

- Informazio garden eta egokia ematea.
- Erabakien gaineko eraginaren gaitasuna ahalbidetzea.
- Eztabaida kolektiboa bideratzea.
- Kontrolerako mekanismoak finkatzea, herritartasunetik.

Aurreko guztiaz gain, funtsezkoa da instituzioak humanizatzea eta desburokratizatzea. Hau da, Instituzioa barrutik eraldatzea. Era berean, kultura parte-hartzailea sustatu ahal izateko, partaidetzarako espazioak sortu behar dira, praktikatik abiatuta. Praktika eraldatzailea, kalitatezkoa eta eraikitzailea. Eta egiturazko

bazterketa edo diskriminazioa pairatzen duten sektoreak nabarmendu behar dira; esate baterako, emakumeen sektorea.

2. Gipuzkoan garatutako politika parte-hartzailea



Demokrazia parte-hartzailean aurrera egin nahi izan da, herritarrei aukera eman ez eurentzat garrantzitsuak diren proiektu estrategikoetan eta erabakietan eragina izateko.

Beti dago abiapunturen bat, ez da hutsetik hasten; ordura arte egindakotik abiatzen da. Lehentasuna izan duen aurreneko gauza praktika izan da; hau da, herritarrek benetako aukerak izatea beren herriaren etorkizunarekin eta interesatzen zaizkien gauzekin zerikusia duten gaietan parte hartzeko. Tokiko esperientzia parte-hartzaileak nabarmendu ziren, baina, betiere, sareetan artikulatuta. Udalei partaidetza aritzeko aukera eman zaie, baina ez bakoitza bere aldetik arituz, baizik eta sare gisa lan eginez. 2011n sortu zen aurreneko gauzetako bat "Herritarrekin" Sarea izan zen, udalek eta Aldundiak batera egin zezaten lan. Sare hori martxan jartzeko, udal guztiei irekitako partaidetza-prozesu bat abiarazi zen, eta, prozesu horren emaitza gisa, sarearen espazioa sortu zen. Orain, ia 4 urte daromatza martxan. 150 pertsona inguru aritu izan dira arlo honetan (ordezkari politikoak, teknikariak eta herritarrak, udaletan osatutako partaidetza-batzordeetan kolaboratu dutenak).

Parte hartu duten pertsona horietatik guztietatik, 40-50 lagun inguruko talde bat prozesu osoan egon izan da, oso modu aktiboan egon ere. Sareak dinamika parte-hartzailea eta eraikuntza kolektiboko dinamika dauzka, konfiantzan eta

horizontaltasunean oinarritutakoa. 4 talde iraunkor daude: koordinazioko bat (Gipuzkoako 10 eskualdeetako eta Donostiako ordezkari osatutakoa), eta beste 3 talde iraunkor, udalerrri txiki, ertain eta handiei dagozkienak. Talde horietako bakoitzak bere dinamika dauka, eta bakoitzak bere planifikazioa egiten du; gainera, bakoitzak erabakitzen du zer landu nahi duen modu bateratuan urte osoan, eta gai horiek prestatzen ditu. Urtean behin, batzar nagusia egiten da, eta, bertan, urte osoan zehar egindako lana bateratzen da. Era berean, zenbait talde *ad hoc* antolatzen dira (aurrekontu parte-hartzailea, generoa eta partaidetza...), eta trebakuntza-jardunaldiak, trebakuntza-gidak, atzerriko esperientziak ezagutzeko bidaiak eta abar antolatzen dira. Sare aktiboa da, beste modu batean funtzionatzen duena, batera lan egitearen beharrezanetik abiatuta, eta ez formaltasunetik edo araudietatik abiatuta.

Sarea martxan jarri zen urte berean, Aldundiak udaletarako diru-laguntza berriak abiarazi zituen, lurralde osoan garatu nahi ziren esperientzia parte-hartzaileak finantzatu ahal izateko. Udalen eta Aldundiaren artean, batera lan eginez, 422 esperientzia parte-hartzaile finantzatu dira. Guztira, milioi bat seihun eta laurogeita hamar mila euro inbertitu dira kontzeptu horretan. Esperientzia horietatik guztietatik, 15 zuzeneko herri-kontsultetara heldu dira. Gainera, garrantzitsua da esatea probintziako ia udalerrri guztiek hartu dutela parte sarean. Garrantzitsutzat jo da esperientziak bi liburutan jasotzea, informazioa gainerako udalei ere helarazteko.

Udalekin aritzeaz gain, finantziario bateratuko lerro bat eskaini zaie herri mugimenduari, prozesu parte-hartzaileak egiteko; hori horrela, 63 prozesu finantzatu dira modu bateratuan, 570.000 euroko aurrekontuarekin.

Partaidetza zeharkako politika gisa hartzean, Aldundiak politika publikoekin zerkusia duten zenbait prozesu garatu ditu. Esate baterako, herritarren partaidetzarako zuzendaritza sortu da (lehen bulego bat baino ez zegoen). Zuzendaritza hori Ahaldun Nagusiaren Kabinetean dago kokatuta, beste zenbait politika estrategikorekin batera: genero berdintasuna, euskara, dibertsitatea, giza eskubideak eta memoria historikoa dira aipatutako politika horiek.

Gauzatutako edo abiarazitako proiektuak:

- Gipuzkoako aurrekontu parte-hartzailea, lurralde osoan, 20 milioi euroekin 2015etik 2019ra; 2 milioi, eskualde bakoitzerako.

- “Herritarrekin martxan” prozesua, Gipuzkoako barrualdeko garraio publikoaren zerbitzuak nolakoak izan daitezkeen definitzeko. 5.000 lagunek hartu dute parte, eta jasotako proposamenen %75 onartu egin dira. Garraio publikoko inbertsioa %36an handitu da, eta 57 lanpostu berri sortu dira.
- Igeldo izeneko Donostiako auzoaren desanexioari buruzko herri kontsulta.
- Lurralde mailako azpiegitura baten eraikuntzari buruzko (zehatzago esateko, material geldoen biltegi bati buruzko) herri kontsulta.
- Partaidetzarako Foru Arauaren eta garatutako politikaren gaineko ebaluazioa egiten ari dira, politika hori 2010ean martxan jarri zenetik. Zer egin da ondo? Zer hobetu behar da urte hauetan?

Aldundiak tokiko esparrua nabarmendu nahi izan du, udalekin egindako lana, alegia; eta hori agerian geratu da aurrekontu mailan. Herritarren partaidetzarako zuzendaritzak daukan diruaren ia %75 udalekiko lanean inbertitzen da, beraien prozesuak garatu ditzaten. Herritarren partaidetzarako Aldundiaren zerbitzu tekniko berria ere osatu da; zehazki, 5 pertsonak osatzen dute zerbitzu hori.

3. Esperientziatik ikasitakoa eta ideiak

- Partaidetza egiteko, ezin da baldintzarik onenen zain egon, horrela ez baita inoiz hasten. Garrantzitsuena bidea da.
- Prestakuntza: kultura parte-hartzailea parte hartuz sustatzen da, baina praktika hori beharrezkoa da.
- Tokiko maila funtsezko esparrua da herritarren partaidetza garatzeko.
- Lurralde berean lan egiten duten instituzioen artean, ikasketa bateratuko espazioak egon behar dira, horrela norabide berean joaten delako.
- Udalez gaindiko Instituzioetatik egindako lana funtsezkoa da; izan ere, modu horretan, sinergia sortzen da, eta udal bakoitzak bere kabuz lan egiten badu, aldiz, ez da halakorik gertatzen.
- Barrurantz eta kanporantz lan egitea, herritarrekin eta instituzioarekin berarekin, barrutik.

- Borondate argi eta oso irmoa ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa; horrez gain, beharrezkoak dira giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, planifikazioa, ebaluazioa eta lan asko egitea; izan ere, gauzak modu parte-hartzailan egiteak beti eskatzen du lan handiagoa, baina umiltasunez.

Elkartzen garenean eta espazio batean zein bestean arazoak sortzen direnean, beti esaten dugu esaldi bera: Inork esan al zuen hau erraza izango zela? Ez da erraza, baina merezi du.

Partaidetzaren artikulazioa, tokiko esparrutik.

Hernaniren kasua

Luix Intxauspe.

Hernaniko alkatea

Azaltzen den testuak partaidetzaren alderdirik politikoenari egiten dio erreferentzia, hau da, tokiko esparrutik, udal batetik, gauzatu daitezkeen partaidetzaren eta proiektuen gaiari buruzko konbentzimendu politikoari. Hernani (Gipuzkoa) 20.000 biztanleko udalerrria da, eta aspalditik daude bertan partaidetza foroak. Aurreko urteetan, parte-hartze prozesuak abiarazi ziren, baina beste gehigarri batzuk gaineratu ziren: giza baliabideak (parte-hartze teknikaria) izendatzea, eta, aurrekontuan, parte-hartzera bideratutako partida bat sortzea, parte-hartze prozesuak egiteko aurrekontua jasotzeaz gain, prozesu bat gauzatzen den bakoitzean, proposatutakoa betearazteko beste partida bat areagotzeko. Kate bat bezalakoa da; izan ere, parte-hartzeak berekin dakar prozesuetan erabakitzen dena praktikan jartzea, eta horrek, aldi berean, gastua dakar.

Prozesu guztian, hainbat alderdi oso garrantzitsuak izan dira: Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza; sinergiak eratzeko egon den konbentzimendua, laguntza eta lana, eta erakunde horrek eratu zituen parte-hartze eta ikasketa eskolak. Prestakuntza funtsezkoa da, eta beste udalerrri batzuekin lankidetzan aritzea oso garrantzitsua da.

Udalan bi tresna inplantatu dira; hona hemen azalpena:

1. Parte-hartze foro egonkor eta iraunkorrak

Sektorekako foroak dira, eta, bertan, gizarte erakundeek eta banakako pertsonak parte hartzen dute. Hainbat forok urtetako dinamika dute, eta jarraian azalduko ditugu:

- Jai Batzordea: San Juan jaiak eta urtean zehar egiten diren beste batzuk antolatzekeo ardura du. Kultura, kirol, hezkuntza eta abarretako eragileek

osatzen dute; aurrekontua kudeatu, jaiak antolatu eta programazioa erabakitzen du.

- Garapenerako lankidetzaz: talde honetan, Udalak, gizarte eragileek eta alorreko pertsona sentsibilizatuek erabakitzen dute norabidea, zein proiekturi esleitzen zaion aurrekontu partida hori (gaur egun, Hernaniko Udalak aurrekontuen %0,79 bideratzen du lankidetzara; udal bakarra da Euskadin, hain ehuneko altuarekin).
- Genero Berdintasunaren Kontseilua: lantalde honetan, Udalak, berdintasunaren alorrean lan egiten duten erakundeekin batera, Udalaren berdintasun plana lantzen du, eta prozesuaren jarraipena egiten du.
- Kirol Batzordea, kirol klub edo klub federatuei zuzenduta. Klubei ematen zaizkien laguntza ekonomikoak kudeatzen dira, laguntza ekonomikoak emateko irizpideak zehazten dira, eta emakumeak eta etorkinak kirolean sarztearen alde lan egiten da.
- Gazteriaren Batzordea: ez zegoen, eta orain dela gutxi sortu da; gazteriaren plana landu du, eta, orain, aurrekontu partidarekin Gazteria Saila sortzeko lanean ari da Udala.

Nabarmendu behar da kontseilu eta foro horiek guztiak erabakigarriak direla.

Udalak parte-hartzearen alorrean egindako apustu nagusiak dira:

- **Lurralde-eremua.** Auzotarren elkarteek ezagutzen dute errealitatea ondoen. Parte-hartze Batzordeak lan handia egin zuen auzotarren elkarteekin. Hernanin, 14 auzo daude, eta, horietako 10etan, auzotarren elkarteak zeuden. Aldez aurreko lana egin zen elkarterik ez zegoen lekuetan elkarteak sortzea sustatzeko eta azpiegiturak (lokalak auzoetan bertan) emateko. Landu ziren lehenengo gaiak finantzaketari buruzkoak izan ziren. Auzotarren elkar-teentzako partida bat bazegoen, eta bikoiztu egin zen. Elkarteekin batera, laguntzak banatzeko irizpideak zehaztu ziren. Erabaki zen zati bat elkar-teen funtzionamendu arrunterako izango zela, eta, bestea, kultur jarduerak sustatzeko (horrek sortzen baitu giroa auzoan). Hurrengo pausoa izan zen laguntza bat (*Auzolana*) sortzea, komunitate lanetarako. Auzotarren elkarteekin batera lan egin zen, eta oso dinamika interesgarria sortu zen; izan ere, auzo bakoitzean, hainbat ekimen proposatu dira (frontoiak egin dira, parkeak zaharberritu dira...), eta elkar-teen arteko sareak ezartzeko ekimenak

sortu dira, Auzolan ekimenaren egunean, auzoetako jendea lan bat egiteko elkartu dadin (adibidez, parke bateko zabuak margotzea), eta, beste egun batean, beste auzo batera joan dadin. Batzorde horretan lan egiteak herri guztiaren interesekoak eta ez bakarrik auzo baten interesekoak diren alderdiak sustatzen lagundu du. Adibidez, Hernaniko udal autobusak kritika ugari zituen ibilbideen inguruan. Gai hori elkarrekin batera landu zen, ibilbidea aldatzeko eta adostasunak lortzeko. Elkarrekin, beste gairen bat ere landu da: 28 haur parkek 30.000 euroko mantentze-gastuak zituzten urtean. Ez zegoen diru nahikorik guztiak mantentzeko, eta, eskuragarri zegoen diruarekin, parke batzuk kentzea erabaki zuten auzotarren elkarrekin eta Udalak. Auzotarren elkarrekin arteko ekintza bateratu horiek guztiak funtsezkoak dira herriaren ikuspegitik lan egiteko, eremuen edo auzoen ikuspegitik soilik lan ez egiteko.

- **Aurrekontu parte-hartzaileak.** Aurretik hainbat esperientzia izan diren arren, Aldundiak prestakuntza sustatu eta eskaini du. Hernaniko Udalak 500.000 euroko aurrekontua jarri du mahai gainean, herritarrekin batera zer egin erabakitzeko. Proposamenak jaso dira sektoreetatik eta auzotarren elkarrekin; bestalde, talde eragile batek (politikoa, teknikariak eta herritarrak) proposamen horiek eztabaidatzen ditu, irizpide batzuei jarraiki, eta horren arabera baloratzen da.

Prozesu honetan, adostasun politikoa sortu da; oso garrantzitsua da epe luzerako ikuspegiarekin lan egiteko eta prozesu mota horiei jarraipena emateko. Administrazioako teknikariak inplikatu eta trebatzea ekarri du; izan ere, askotan, aurrekontua ukiezina dela eta politikariak (eta ez herritarrek) erabaki behar dutela uste dute. Gainera, zalantza asko sortzen dira “teknikaria” ez den pertsona batek teknikariaren alorreko gaien inguruan erabakitzeko orduan. Espero dugu horrek epe ertain-luzera aldaketak ekarriko dituela Udalaren funtzionamenduan.

2. Aldian aldiko prozesuak, une zehatzetan sortzen diren eskariei erantzuten dietenak

Prozesu bat abiarazi zen gazteen lokalen inguruko Lan protokolo bat eratzeko; izan ere, oso gai gatazkatsua da herritarrentzat eta merkatariarentzat. Kirol instalazioen erabilerari buruzko diagnostikoa eta plangintza ere prestatu dira (batez ere, emakumeen, etorkinen eta erabiltzaileen parte-hartzea landu zen), ez bakarrik kirolari begira, baizik eta ariketa fisikoari begira ere. Hainbat beharrian

nabarmendu dira, besteak beste, ibiltzeko bideen seinaleztapen hobea, banku gehiago eta komun publiko gehiago. Horrekin batera, hezkuntza zentroetako instalazioen erabilerari buruzko diagnostikoa egin da; izan ere, lehen, 17:00etan ixten ziren ikastoletako jolastokiak, eta helburu eta xede berritarako erabili ahal izatea proposatu da. Azkenik, gazteriari buruzko diagnostikoa eta plangintza ere prestatu dira. Aldian aldiko prozesu horietako asko proposatutako hobekuntzak eta aldaketak gehitzeko aurrekontuan islatu dira.

Amaitzeko, parte-hartzearen formalizazioari dagokionez, arauak sortu eta ordenantza bat egitea baino, adostasuna lortzeko lan egin dugu, azaldutako foroetarako buruzko hitzarmen politikoa lortzeko. Udaleko indar politiko nagusien artean adostasun politikoa baldin badago, prozesua ibilbide luzekoa izango da.